


K I R R I X K A K

---

Uñiertzako teatro txikia.



A handwritten signature in black ink, appearing to read "Zalikasay". The signature is fluid and cursive, with a large, open loop at the top and several diagonal strokes extending downwards and to the right.

## K I R R I X K A K

### EGTILLEAK

AMONA.- Amonatxo zaar bat irudituko daben umetxoa.

MANU

KELE

ANTON

BEGO

NATI

}

Amonagaz bizi diran neska mutil umezurtzak.

MATXIN.- Erriko aguazil lodikotia.

JHON

ESTHER

{ Pelikula egilliaak.

Gaurko denporetan.

Etxe zar,utz ta traketz baten sukaldlean.

Manu.- Kendu alkondara ori!

Kele.- Zegaitik?

Manu.- Neuria dalako.

Kele.- Guzurra.

Manu.-Guzurra dala?

Kele.-Ez da zuria, Antonena baño.

Manu.-Esaten dozulako be...

Kentzoko esan dautzut.

Anton.-Amuma, neuria ez da ba?

Amona.-Danona, txotxo, danona.

Kele.-Orrela, neuria be bai, ez?

Amona.-Pobrien kontuak olaxe dira. Al dan moduan konpondu biar.

Anton.-Neuk erabilli neban atzo.

Manu.-Ta zer? Baita nik zure prakak.

Amona.- Txotxo, noiz ikasi biar dozue alkarren maitasunbez biziten, anai lez alkar artzen?

Kele.- Beti-beti beorreko euki nai izaten dau errazoa-ta!

Manu.- Ea zuk nai dozuna egin, ez? Eztozu ba zeuriagaz urtengo. (Alkandoratik tengadaka azi ta apurtu egiten dautsa)

Kele.-Ikusten, amuma? ikusten?

Muma.- Aitiaren... Orain amumarentzako biarra, ezta? Beti

bardin.

Manu.-Nai^ta ez dot egin.

Kele.- (Asarre, kolpe egiteko eran) Ezetz?

Amona. -Manu..!

Manu.- Ointxe be neuri kolpe egiten dabil. Nai^ta ez  
dot egin.

Amona.- Ba'dakit. Bafia zure gaiztakeriak beti ekarten  
dabe olako zerbait.

Kele.- (Alkondaria kendu ta Manu'ri botaten dautsa)  
Aor, orain zeuretzat.

Bafia nire ez eskatu geyago ikomelaurik.

Manu.- Nai be ez zurerik.

Kele.- Ikusiko dogu.

Amona. - ~~Bafia~~ zer esango dabe orrela ikusten zaituenak?

Anton.- Amuma, eztakizu? Gaur Manu eskola kiesik ibilli  
da.

Amona.- E? Benifan!

Manu.- Nai dozuz tollanak artu min lahan orrek?

Amona.- Ia, ia, esaten dozulako be gero.! Zeuk oraindik  
errazoia?

Zegaitik ez zara juan eskolara?

~~Esan, zegaitik ez zara juan!~~

Anton.- Errebal txikiñian ibilli da. Neuk ikusi dot,

~~esan, epi, neuk ikusi dot~~

Manu.- A lapiko txiki! Atrapauko zaitut kalian. Ikusiko  
dozu, ikusi.

Amona.- Zelako lotsagabekeriaik dira orreik, Manu?  
Besi lein efin dozu of ekoniket  
Belauniko jarri ta egin parkatu jauna, olako  
gaiztua izan barik.

Eztakizu mutil gaiztuak gantzeruen lagunak  
izaten dirana?

Kele.- Amuma, Patxi be, gaiztua izan zalako, aitzetan be-  
ra jausi zan, ezta?

Manu.- A lantzoia, txirrist egin eta jausten diranak  
be gaiztuak izaten dira ala? On ibesinistu, on ibe!

Kele.- (Eskua luzatuaz) Ala ba, egin ba parkatu jauna.

Manu.- Zuri?

Kele.- Ikusten, amuma? Ez dau egin nai.

Manu.- (Parkatu jauna egiterakoan, txitximurka egiten  
dautso)

Kele.- Ai ..! Orrek ez dau balio.

Amona.- Manu...

Manu.- (Ondo egiñaz) Ikusiko dozu, txo!

Amona. *[Feldi. Naikuda.]*- Zegaitik ez zarie ibilten alkarregaz jokuan  
edo, ikusi makusika edo, beti <sup>al karri @</sup> txopinga ibilli  
barik?

Kele.- Onegaz? Tranpak egiteko?

Manu.- Zefiek?

Anton.- Estreñia bestela be!

Kele.- Neu lenen.

Ata

Manu.- Neu naz zarrena.

Anton.-Baita ni gaztien.

Ikusi makusi.

Kele.- Zeu lenen? ~~Trempa txikiak egiteko?~~

Anton.- Ezta. Nene-benetan.

Ikusi makusi.

Manu.- Ze ikusi?

Anton.- Ikusten dot ikusten dot. ~~Mt.: Loba le, Le~~

Kell - Ara, zer de, ma edo le? - Anton - Le.

Manu.- Lepua.

Anton.- Ez.

Kele.- Lepanto!

Anton.- Ez.

Manu.- Lefante.

Anton.-Lefante? Elefante esaten da. Ze kakote da ber  
rau?

Manu.- Lemia.

Kele.- Lekia.

Anton.- Lekia? Ori zer da ba?

Kele.- Eztakizu? Indarrak-eta eukiten dabentzazala.

Anton.- Ez.

Manu.- Le..le...Lesteko aizia.

~~Anton - Aizia bila.~~

Kele.- Aizia ikusi egiten da ala?

~~Anton - Aizia bolarak ez dira ikusten?~~

Manu.- Le..Lebatza.

Manu - Zuduneko Kandilek

Anton.- Ikusten ?

Manu.- Le..le..

Anton.- Esango dot?

Be ikusi egiten dira ta...

Kandilek izaten dire?

Manu.-Le..Le..Lekeitio.

Kele.- Le...Leoia

Anton.-Ezin? Ezin?

Manu.- Zer da ba?

Anton.- Igarri..igarri.!

Kele.- Ointxe be tranpan dabil au, amuma.

Manu.- Le..le..

Kele.- Esan nigaitik.

Anton.- Esango dot,amuma?

Amona.- Onezkerro...

Anton.- Lapak.

Manu.- Emoten ba'dautzut gero... Lapak le'gaz azten da ala?

Anton.- Ez da elegaz azten?

Kele.- Hana zuk le esan dozu,le.

Anton.- Ledrik ikusi dozu iñoiiz,amuma?

Amona.- Bai orruka be.

Anton.- Askotan?

Amona.- Birritan bai beintzat.

Kele.- Nun?

Amona.- Zirku bat etorri zan uda baten errira.

Anton.- Leo i ta guzti?

Amona.- Lau bai gitxienez.

Anton.- ~~Iza?~~ Andiak?

Amona.- Burdiñazko kaiol andietan sartuta.

Anton.- Ene.!

Amona.- Mutiltxuak pozik juaten ziran eurak ikusten.

Ogi zatiak eruaten eutsezan, arrain azurrak, oke-la ondakifiak. Ta leoiak, bota ala, iruntsi.

Manu.- Zelan emoten eutsezan ba?

Amona.- Makilla luzien puntetan.

Kele.- Tengadarik ez eutsen egiten?

Amona.- Bai makillak brintzatu be.

Manu.- Orain zegaitik ez dabez ekarten leoiak?

Amona.- Zetarako?

Iru mutiltxo urreratu ziran bein.

Anton.- Ni lako txikiak?

Amona.- Ba... ortxe ta ementxe.

Anton.- Ta?

Amona.- Arri txikiak leoiai botaten jolasean ebiltzan.

Manu.- Ta leoiak geldi?

Amona.- Orruka, amorruz. Pozik ebiltzan mutiltxoak. Bitsetan, leoiak zirikatzen.

Kele.- Ta arriakin jo egiten zituen?

Amona.- Jo ta bizitu. Zoratu eragin! <sup>Amorrazten ibîni,</sup> Ta bein...

Anton.- Zer, amuma, zer?

Amona.- Txirrist egin eban mutiltxo batek. Arria botatean laprast. Burdinezko kaiola ondora jausi zan, arria botatean egin eban indarrez.

Jausi ta batera ledrik zarrenak erpakin ten egin

eutsan, ten.  
Kele - Zelan ten! - Amona. - Burdinaren artean.

Anton. - Il egin eban?

Kele - Erpia bekarreraz!

Amona. - Ango ikara, txiliotsa, estutasuna! & & & & & & & & -  
Anton. - Domatralenik ez enken?

Manu. - Leoia zaintzallerik ez dabe eukiten ala?

Amona. - Leoia zaintzallea agertu zan bixkor. Tiroka asi  
zan, baña leoia gero ta itsuago, ez egoan umetxuari  
lagateko. Erpakin arpegi guztia urratu ta bere  
odola mixkaten itsu-itsu ebillan.

Kele. - Ta ikusten egozanak ezeben ezer egiten?

Anton. - Zeu urreratuko ziran ale?

Amona. - Estutu ziran danak. Didarrez eta negarrez de-

egoian. A zan eskuetan!

pak.. Zaintzallea beretik urtenda ebillen, irizil  
luze bategaz jo ta jo kaiolako burdiñak...

Leoia orruka atzeratu zanian, mutil txikiak ez  
eukan ez zudurrik, ez begirik, ez arpegiko narru-  
rik.....

(Ixiluneam)

Itzala & da ez, Antontxu?

Anton. - Korapilla egin yata eztarrian.

Amona. - Ez estutu mutil. Emen ez da jazoten Jaunkoikuak  
nai dabena baño-ta. Egun aretan be... Aingeru-  
txuak nai izaten ditue zeruan mutil urdurisez  
Zinkalarrak le.

Manu. - Nungua zan mutilla?

Amona. - Nungua? Gaur bizi ba'kidea zan, zuen osaba izango  
zan. Zeuen osaba Peru...

(Bego ta Nati agertzen dira. Bego busti busti egin-

da dator. Negarrez, sispuruz beterik.)

Kell - Ene! Ezkeren!

Bego,- (Negar ta negar)

Manu - Urteera jausi, seguru.

Nati.- Eztakizu, amuma?

Amona.- Ze jasoten da?

Nati.- Ondartzan ebillan ta...

Amona.- Ez dautzuet beti esaten ara ez juateko?

Nati.- Ondartzan ebillan ta...

Amona.- Zenbat bidar entzun biar dozu ori?

Zelako paraderua da ori?

Nati.- Ondartzan ebillan ta...

Amona.- Merezi zeunke goitik bera ebagi-ebagi egitea.

Kell - Nik on epin bein...

Nati.- Ondartzan ebillan ta...

Amona.- Ondartzan bakarrik?

Nati.- Ibon'ek -eta ura bota dautse.

(Kele eta Anton urteetan dira)

Amona.- Ez baketan laga ba'zeuntse.

Bego.- (Zotinka) Nik...nik..nik ez dautset...urik.. nik..  
nik...

Manu.- Gauzez, baña atzo eziñan ibilli ?

Bego.- Gaur, ez..baña.. Atso bai, baña gaur..gaur...

Amona.- Ez dautzut beti esaten mutillakin ez ibilteko?

Nati.- Gu geldi geldi gebizen.

Amuna.- Zeintzuk ziran mutillok?

Manu.- Postura, zeozer egin dautsazuela.

Nati.-Eurak asi dira.

Bego.-Kirrixka bat euken ta guk kendu dautsagulako eurak  
asi dira.

Manu.-Jakingo dot.

Amona.-Aitiaren... Zer jantziko dautzugu orain?

Gure etxian zer dagola uste dozue?

Bego.-Otzakilten nago.

Amona.-Egongo etzara ba, burutik bietzetara buztita zagoz  
ta?

Manu.-Ortxe dago amuma gure alkondaria.

Bego.- Mutillen alkondaria? *neuk jantzi?*

Amona.-Nundik azi be...

Erantzi erropok eta sartu zaite oian ta egon an-  
txe sikatu artian. (Bego ta Nati juaten dira)

(Batetik bestera dabil tarteak arakatzen, erroparen  
batzuk billatu naian)

Oneik umiok... Nerbixuak be etenda lagaten dau-  
tsez bateri.

(Kele ta Anton dato<sub>z</sub>) jantzi batzuk dakarrezala)

Kele.- Politak dira, ez, amuma?

Anton.- Erregalo emon dauskuez, erregalo.

Amona.- Zefiek?

Kele.- Eztakizu? Doate dendariak. Eztakizu bere mandatuak  
egiten ibilten nazena?

Amona.- Emgahs emun dauskuez, emgahs.

Amona.- Ta?

Kele.- Ikusi dau Bego negarrez etorten.

Añón - Bego dabe eta!

Manu.- Esaten juan zarie,ez?

Kelli - ~~Esaten~~ - Manu - Ez dantuet iga mi ale?

Anton.- Gu esaten? Ez,ezta Kele? Berak ez dauskuz emon  
ba?

Kele.- Ederto ba'daukaz arrotuta ibilliko da. Danok ba-  
ño dotoriago.

Anton.-Maistriak pentsatuko dau aberastu egin gariala.

Amona.- (Erropak ikusiaz) Ia...ia...

Jaungoiko maitia! Oneik neska gangarrok lotsatu-  
ta laga biar gaitue, lotsatuta...

Kele.- Ta,ba dakizu?, arek esan dau,zuri ez <sup>kintalek</sup> esateko ba-  
ña...

Anton.- Ez esateko esan dau.

Molla - Zer?

Kele.- Molla gañetik uretarra jausi dala.

Amona.- E?

Kele.- Bai amuma,ez esan <sup>Kintalek</sup> esan dautzudanik,e?  
(Amona sartzen da nesken kuartuan)

Anton.- Esan dabe noiz itoko ibilli dala.

Manu.- Olako arin itoten da ala?

Kele.- Ezetz? Aitona be ito zan ba.

Manu.- Itxasuan.Ta igarian ez ekialako.

Anton.- Ba ekian.

Manu.- Zeñek esan dau?

*etandako*

Anton.-Amumari esango dautsagu gero.

Manu.- Neuk dakit ez ekiala.

Kele.- Dana dakizula pentsatu.

Manu.- Zuk bañio geiago bai beintzat.

Kele.- Zuk?

Anton.- Saustan ba'dakizu nun dagoen?

Kele.- Saustan? Tonto! Saturran.

~~Anton.~~ Manu.-Ene! Saustan da Saturran bat dira ala?

Kele - Ez etxera Saustan en inork izan. Manu - Gata zehi Sankeleku  
Kele.-Baita zuk eztakizu Tres mayuskularik.)

Manu.- Ezta maixuak be.

Kele - Ane leis egilen dabeinak  
ezkaink eratuak dituelako le  
do epia?

Kele.-Jakin ez? ~~Eta Aziera ta buztena biribil biril~~

Anton.- Maixuak jakin ez?

Manu - Beste epiltarren ez.

Manu - ~~Zitam epi iegi de be?~~

Tendozu ori?

Kele - ~~Aziera te buztene biribil - biribil~~

Manu.- Ori be sinistu, txo?

Anton.-Ta Malaga ba'dakizu nun dagoen?

Manu.- Jakin ez? Barran.

Anton.-Nungo barran?

Manu.-Ondarruko barran.

*Menebulus!*

Kele.- Malaga mapan dago.

Anton.-Zereko mapan. Eztakizu andrak euzkia artzen nun  
egoten diran barran?

(Amona Bego ta Nati agertzen dira)

Amona- Sikatu egizu ondo ondo burua, ondo gero.

(Bego, Natik lagunduta, buru sikatzen ibilliko da)

Anton.-Amuma, Aititak ba ekian igarian?

Amona.-Pixkat bai. Ez asko asko.

Anton.- ~~Ibaisten? Iñaki?~~

Kele.- Aitita zelakua zan?

Amona.- Ez andi ta ez txiki.

Kele.- Argala?

Amona.- Totolo.

Anton.- Zuri? Baltz?

Amona.- Ez zuri ta ez baltz. Mariñelen koloreko. Neguan illun, atuntsuan gorrixka. Ule ta bizarra beurre koloreko.

Kele.- Mariñel ona izango zan, ez?

Amona.- Bestien antzeko.

Manu.- Ixurdetan eta ibilten zan?

Amona.- Ixurdetan ain zuzen beez. Ixurdei laga egin bear yakoe arraňak ataraten.

Atunetan, antxoatam, berdeletan...

Anton.- Ona zan?

Amona.- Okerrik eneutsan ezagutu.

Baňa txotxo, zetarako orrenbeste jakin gura?

Bego.- Síkatu dotxamuna.

Amona.- Beste bein ibilten ba'zara...

Manu.- Orix? Betti mutillei burletan da ibilten da-ta

Amona ~~Berrik, ikusiko du. Len be gurien negarra obeto dago.~~

Bego.- Ix da efia.

Anton.- Eza? Ta gero... nege te nege egiten be sinien

Amona.- Negau? Beñak ikusita, den heinbe eurien negaia obeto

Nati.- ~~Zegaitik~~ <sup>Ondarrik</sup> ibilten zara beti baltzez jantziita?

Amona. Alarguna naizelako.

Nati.- Alargun izatea zer da ba?

Amona.- Bakarrik gelditzea.

Anton.- Orretara orain etzara alargun.

Amona.- Zer ba?

Anton.- Geu be emen gagoz ta...

Amona.- Baña laguna falta, senarra falta.

Bego... Ni laguna baño geiago naz, rzta?

Manu.- Izan ez? Inprefuko barrabasa, zu.

Bego.. Entzuten amuma?

Anton.- Ta Martintxu be alarguna izangonda? Gaiztuago da...

Amona,- Batek ba daki. Ain gaiztua ba da, mutilzarra se-guru.

Kele.- Eta Kospa be alarguna da?

~~Manu.~~ <sup>Ama, izan da alarguna?</sup> Eztakizu Pelloneko ama dana? ~~Alarguna?~~

Nati. Ta zegaitik amuma beti beti baltzez ibilli?

Amona.- Ez augarri bat. Oitura bat. Zerbaiten utsunea, illu-tasuna agertzeko.

Kele. Orregaz agertu nai dozu aitita maite zendula, ez?

Amona.- Zeñek ez?

Anton.- Eta amumatxo, alargunai bizarrok urtetan dautse okotzean?

Am na.- Alargunei eta alargun ez diranei.

Anton.- Ollo kakaz igortziten dozue ala?

Amona.- Nek esan dautzu ori Antontxu?

Anton.- Neuk ikusi neban atzo be Peru igortzi ta igortz

Kele.- Bai neuk be. Ta berak esaten eban bizarra  
ariñagò urteteko zala.

Amona.- Bakarrik ebillan?

Anton.- Bai. Ni neuk be Peru lako izatera eltzen na-  
zenian ori egin biar dot?

Amona.- Kontuz gero olako zikinkeriak egiteaz.

Anton.- Bai ta bizarrik urten ezik?

Amona.- Orren keskarik az artu,ez orixe.

Kele.- Bañu eukan aititak bizarrik?

Amona.- Kirikixu batek baño sarratuago.

Manu.- Arek asto ~~pelikano~~;az igortziko eban ta...

Amona.- Zeñek esan dautzuz olako gauzak,nok?

Anton.- Eztakizu? Peru-ta,Ibon-eta,Patxitxu-ta,olako-  
xe kontuak esaten ibilten dira beti.

(Ate otsa entzuten da)

Bego.- Atia joten dabil norbait.

Nati.- Bai zera be.

Manu.- Onek beti atiaren bildurra eukiten dau.

(Atia barriro)

Bego.- Egia da edo ez? Eztozue entzuten?

Manu.- (Zulotik ikusiaz) Aguazilla da.

Anton.- Eskola kiesik egin zendulako etorriko da.

Kele.- Ta orain zer?

Amona.- (Deika) Aurrera. *Aitalko, orain izango dira kontuak*  
(Matxin aguazilla sartzen da Yhon eta Esther  
zine egilleak beragaz datoza. Sartu orduko  
Esther egal batetik eta bestetik erretratuak ata-  
raten ibilliko da. Umiak bildurretan dira.)

Matxin.- (Garratz) Mutil gaizto baten billa gatoz.

Amona.- Zein?

Matxin.- Ondarrutik okerrena.

Amona.- Gurian? Emen?

Matxin.- Ementxe, bai, ementxe.

YHGN.- (Erreak eta erbestetarren eran gaitz esanaz)  
Barrabas txikiaren billa gatoz.

Amona.- Baña...

Matxin.- Eskola kiekik ibilten dana.

Amona.- Beingoa parkatzen eztakizue?

Matxin.- Kristalak apurtzen dakiana.

Manu.- Nik eneban apurtu.

Matxin.- Ixi!

Arrika ibilten dana. *Tiragonenkin ibilten dana.*

Amona.- Baña...

Manu.- Nik eneban apurtu, amuma, sinistu, sinistu.

Matxin.- Danakin auskan ibilten dana.

Kele.- (Dardaraka) Neu naz. amuma, neu naz.

Amona.- Zu, txotxo?

Kele.- Neu juango naz kartzelara, neu.

Matxin.- Zu ez.. zu ez...

Ori da ori. (Manu'ri jarraituaz)

Esther.- Auxe, ez? Ba dauka itxura, bai. (Erretratua  
atara gurarik)

Matxin.- Ez eskutatu, gaizto, ez eskutatu...

Manu.- Geyago ez. Geyago ez!

Matxin.- Ona, etorri onera.

(Eutsi ta Yhon'eri erakutsiaz)

Atsegin?

Yhon.- Ba dauka itxura, ba, ba..

Esther.- Gaiztua da?

Matxin.- Okerra. Piper utza.

Amona.- Ez ainbesteko. Edozein mutillen antzeko.

Jhon.- Benetan?

Matxin.- Ikusiko dozue...

Jhon.- Orretara, ogei milla peseta.

Amona.- Ogei milla peseta? Nundik atara?

Matxin.- Atara ez, sartu.

Amona.- Baña guk ezin. Prakazarrak erosteko be eztau ka-  
gu ta...

Matxin.- Naiago dabe prakazarrekin.

Amona.- Ogei milla peseta...

Jhon.- Zer? ~~52~~ deritxo? <sup>ondar</sup> Ogetabost ba.

Amona.- Neu juango naz ointxe alkatiagana.

Matxin.- Baña etzaitez itsutu... *Akkelicik ez danko ondarrak zehar sartu.*

Jhon.- Ogetabost.. ogetabost...

Amona,- Alargun zar bateri ogetabost milla peseta...

Jhon.- Zer dñño, geiago?

Ogetamar ba, baña zentimurik bez geiago.

Matxin.- Ori da suertia, ri.

Amona.- Baña ez...ez.. Neu iltzia gura dozue?

Esther.- (Kele` ri) Ta zuri befogetamar.

Kele.- Ze erru daukat nik? Nik ez dot ezer egin...

Esther.- Orixegaitik, egin ez dozulako.

Amona.- Zoratuta al gabiz danok?

Jhon.- Ta zuri, amonatxo, eun milla peseta.

Amona.- Baña jaunak... ~~nik~~ ...

Matxin.- ~~Ondar~~ da suertia, ~~ori~~.

Amona. - Ondamendial! Zelako gauzak ekarten dsuskuzuz?

Matxin.- Zinekuak, zinekuak.

Amona.- Ezin dot iruntsi diñozuenik.

Jhon.- ~~Ez erdula~~, amonatxo. Ez bildurtu. Pelikula egilliak  
gara.

Esther,- Amonatxo baten estutasunak agertu nai doguz.

Ume txikiz betetako amonatxo baten keska ta burukominiak.

Amona.- Baña nik ez dit... Nik ez dakit ezer.

Jhon.- Zer jakin ez?

Esther.- Bizi guztian egin dozuna egiten jakin ez?

Am na.- Ta...

Manu.- (Adoretuta) Eztakizu amuma? Neuk erakutsiko dautzut.

Amona.- Zuk txikò?

Kele.- Totu ta Meyana egiten ba dakigu beintzat. Pope-yena be bai. Eztakizu?

Bego.- Ara, zu dotore dotore jantzi ta...

Jhon.- Ez keskatu, ez arduratu, konponduko gara.

Esther.- Guk ez dautzugu eskatuko bizi guztian egin dozuma besterik. Mutiltx oneik zaindu, eurei jaten emon, jantzi ta... *eskola kiesik egiten bge ea.*

~~Amna~~ Amona.- Nik ezin sinistu baña, ezin sinistu.

Jhon.- Ai amonatxo, pelikuletako gauzak ez dira ez ebez sinistutekoak.

Amona.- Zeñeri eskerrak emon biar dautsaguz?

Jhon.- Zeñeri? Niz itoko ibilli dan zure alabatxoari. Orduntxe jakin dogu nor zarian ta zure illobak nortzuk diran.

Ta azpalditik ume errukarrien alde egiteko asmo-  
tan gabiltzan pelikulia ementxe egingo dogu, *zenbat eti goadiengoa*

Esther,- Propaganda egiten azi gaitezen, gertu danok  
erretratu bat atarateko.

Amona.- Ain baldar?

Jhon.- Bizi zarien lez, *ba*ardin *bardin*. *Zenbat eti goadiengoa*  
*olto.*

Ester - Biblioia nai doen?

Anton - Olgeta...

Zlora - Ollo kantek bain emendio obispo neuk  
emongo dantso.

Anton - Asto jekotxa?

Zlora - Asto biearra. Ratakiem? Begire...

(Patrīkarelik libito teikte bat atarte  
i printen dantso). Positik?

Anton - Ta luse luse asten baizata zelar ebagi?

Zlora - Orain dotorre zagoz, bai?

Begir - Ta gu? Olako iñtasi?

Nati - Osi, osi, ta gu?

Anton.- Egon pixka pixka baten.

Esther.- Nera zuaz?

Anton.- Ollo kaka egitera nuabibotia urteteko.

Manu.- Tonto lapiko, olako arin urteten daben lakuan?

Matxin.- Geldi, errekontxo, errebal txikiñian zabize-

> la uste dozue?

Bego ta Nati.- Ta ~~gu~~? Olako itxusi?

Esther.- ~~Noiz~~ Orain bañ~~e~~ dotoreago ~~n~~?

Kele.- Txapela lagako daustazu Matxin?

Matxin.- Erretratako? (Emoten dautsa) Ta bastoia?

Manu.- Ez ~~as~~arratu, baña...

Eztakizu egun baten Zubizar enduan igari egite  
gendulako erropak zelan gorde zeuskuzun?

Matxin.- Ta?

Kele.- Bai ta guk bastoia eskutatu geuntzun.

Matxin.- Demoniño demoniñena! Zein zan ori?

Manu.- (Egal batetik bastoia atara ondoren)

Matxin...!ixi.! Orain neuk daukadaz txapela  
ta bastoia!

(Erretratua ataraten dautsen bitartian, dan  
danak dotore ta alai, barre eragiten, koplentan  
diardue.)

Kele.- Ze izen ipiñiko dautsazue gure pelikuliari?

Matxin.- Zuenari? Barrabasak!

Jhon. - Ez ,ez...~~Obeto~~ Txitxarro kumiak,

Manu.- Ez. Obeto KIRRIKKAK (Aro, am, negria jolen)

Danuk.- Ori, ori KIRRIKKAK. ba' lebil lez) Alkale jan-  
naren ojindua adierazten dot... emonean  
egung, dan pelmakalrik <sup>Amaya</sup> esunap, daben izena izan  
dole... Kirritkok!

Danuk.- Ori, ori, edestu. Kirritkok! <sup>Amaia</sup>

Kirrixken kantua

(Amaia,nai izan ezkerro,kantu onetxegaz egin lei)

Bost anai-arreba  
beti ur ertzean,  
batzutan eskolan,  
kiesik bestetan;  
Matxin aguazillan  
tollanak artzean,  
estu ibilten gara  
kale bazterretan.

Amonan kontseju,  
Matxiñen tollanak,  
maixuen alegin...  
alperrik dan danak.

Kirrixka azi gifian,  
kresalez buztita,  
Kirrixka ilgo gara  
beti,bai,KIRRIKAK.